# OLERKI BARRIAK KALIFORNIATIK BIALDUAK

ELANTXOBETARRA NAZ
EZIN DOT UKATU
NEURE HERRI MAITEA
NAHI NEUKE GORALDU;
HERRI EDERRAK ASKO
MUNDUAK BADITU
NEURETZAKO HOBARIK
EZIN DOT AURKITU,
ENE AMA LAZTANA,
ELEIZA TA PORTU,
NEURE MAITEAK DIRA
EZIN DITUT AHAZTU.

HORTXE JAIO NINTZAN DA
HORTXE NINTZAN HAZI,
NEURE AMA NEGARREZ
HORTXE NEBAN ITXI.
NAHITA KALIFORNIAN
LUZAROAN BIZI
EGUNERO ZAITUET
GOMUTAZ IKUSI,
IRUDITXO MAITEAK
EZ DAUSTE IGESI,
EURAK DIRA BA NEURE
JAUBE TA NAGUSI.

AMA BEGOÑAKOAN
IRUDI MAITEA
IDUNETIK ZEUSTANA
IPINI ESKEGIA,
BULAR GANEAN JABILT
MAITERO GORDEA:
BERA DA NEURE LAGUN
ETA ZAINDARIA,
BERAK ALAITUTEN DEUST
MENDIKO BIZIA,
BERA DA, ZEURE ORDEZ,
AMATXU NEUREA.

EUSKADIKO HERRITXU
ITXASERTZEKOA
ARRANTZALE APALEN
HABIA GOZOA.
NEBADAKO MENDIAN
JAURTITAKO OIHUA
ITXAS GANEAN ZEHAR
ZUGANANTZA DOA,
ENE BIHOTZ AGURRAU
BERAGAZ DAROA
GORA EUSKADI ETA
NEURE HERRITXUA!

**Gorgonio Renteria (Ekin 1932)**